

Ikusten dituzu, Magi, zuhaitzak biluzten. Hosto direnak orbel izango dira laster. Gu bezala. Zuhaitzak artega dira, zin egiten dizut; geroa misterioa da guztiontzat. Zu ez al zara beldur, Magi? Ez, zu ez. Ni bai, ordea. Zu beti izan zara ni baino ausartagoa. Altxa ezazu begirada eta ikusi nola errenditzen diren zuhaitzak haizearen gupidagabetasunaren aurrean, hostoak ebasteen. Guri ere gauza bera gertatuko zaigu, zin egiten dizut. Kontu, estropezu egin gabe hostailarekin, ez nuke zuk minik hartzerik nahi. Heldu gogor besotik.

Zer duzu, Magi? Zergatik begiratzen didazu horrela? Horrela begiratu zenidan azken aldia sabelean zeneraman haurra galdua zela esateko izan zen. Zer duzu? Ez esan beldur zarela orain, orain ez, *maittia*, orain berandu da beldur izateko. Aurrera jarraitu behar dugu, tira, ez zaitez gelditu, gure haritza topatu behar dugu eta aulki hauek sekulako pisua daukate, ez pentsa. Sasoi batean indartsuago nintzen orain baino. Zenbat alditan egin ote dugun paseotxo hau, e? Begiak itxita egiteko gai izango nintzatekeela esango nuke, aparkalekutik gure haritz zaharrerainoko bide hau; baina orain, begiak itxiko banitu, zuk besteren bat hartuko zenukeen beldur naiz, basoan galtzen zarela imajinatzen dut eta ezin aurkituko zintuzkedala, eta horrek, Magi, eta horrek korapilo handia sortzen dit eztarrian, itotzerainokoa.

Tuju-tuju! Tuju-tuju!

Barkatu, Magi, aspaldian ez naiz mendian ibili eta nekea igartzen dut biriketan. Eztul madarikatua! Gogor harrapatu nau oraingoan! Tuju-tuju! Kontatu nizun medikuak esandakoa, ezta? Galdera inozoak egiten hasi zitzaidanekoa. Lehenengoa, betikoa: Erretzen al duzu? Orain, ez. Orain, ez? Ez, badira zortzi urte azkenengo zigarrotik. (Gezurra, Magi, badakizu ezkutuan erre izan dudala, azkenaldi honetan batez ere.) Bigarren galdera: Mukirik? Bai. Asko ala gutxi? Normal. Zer koloretakoak? Ba, ez dakit, ilunak edo... Eta hirugarren galdera: Odolik? Zer? Odolik flemetan? Ez nion erantzun. Nazkatuta nengoen ordurako. Fonendoskopioarekin aztertu ninduen kontsultan, alkandora eta barruko kamiseta zakarki altxatu eta, zimur-zimurturik utzi ondoren, bolante bat egin zidan ospitalera joateko. Hark ez zekien ni ere medikua nintzela, banekiela zer neukan, eta ez niola ezer esango. Zertarako. Hau zeuri kontatzen dizut, bakarrik. Zuk ez diozu inori ezertxo ere kontatuko. Zuk ez duzu katarrorik harrapatzen.

Ai, Magi, zenbat gustatzen zaidan zure ilea, luzea eta horia. Kotoia bera baino leunagoa. Begira nola egiten duen dantzan airean. Maite zaitut.

Bi txantxangorri haritz adarrean

Eta ezpainak margotzen dituzunean... zoratu egiten nau horrek. Gaur ez dituzu pintatu. Zaude, zure zorroan edukiko duzu ezpainetakoa eta, ziurrenik. Neuk margotuko dizkizut. Ezpain gorri-gorriak, gereziak baino goxoagoak.

Lastima zu ez konturatzea, lastima. Begietan lausoa sartu zitzaizunetik dakit betiko zintudala galdua. Ez zinen bat-batean itzali, apurka-apurka izan zen, eta konturatu orduko ez zenekien koilara batek zertarako balio zuen ere. Hasieran, “Non utzi ditut etxeko giltzak?” izan zen. Despiste bat. Nork ez dauka despisteren bat edo beste. Gero, presio-eltzea martxan utzita paseatzera joan zinen. Ertzain-etxetik deitu zidaten eztrandak sukaldea eta sabaia triskatu zituela esateko, Jainkoari eskerrak inork ez zuela minik sufritu, ez zegoela inor etxean. Jainkoari eskerrak, esan zuen ertzainak. Zer ote zekien hark Jainkoaz! Etxean agertu zinenean konturatu zinen gertatutakoaz, agian pelikula bat bezala ikusiko zenituen oroimenak zure buruan, garbantzua, presio-eltzea, ezpain gorriak, ile horia, ordu biko paseotxoak, suhiltzaileak, kea... Errua, kulpa, lotsa, tristura eta malkoak. Agian, ez zenuen ezer ulertu. Agian, ke beltz hartan histu zen zure begirada betiko. Harrezkero, behako lausoa. Harrezkero, medikuak, frogak, kaka.

Begira, Magi, txantxangorria. Badakizu txantxangorria oso zorrotza dela bere lurraldearen mugak zaintzen, irmoki defendatzen duela bere bizilekua. Guk egin dugun bezala, elkar maitatzeko. Zuhaixka adarretik txorrotxio egiten du bere lekua aldarrikatzeko. Ia-ia gure haritzean guk geuk egingo dugun gauza bera.

Gogoratzen? Barkatu, hitz egiteko era bat da. Hitz egiteko erak aldatu beharko genituzke. Ez dakit gogoratuko duzun gure lehen aldia baso honetan, kontatuko dizut badaezpada. Ibilaldi bat antolatu zuen herriko mendigoizale taldeak udaberriko larunbat goiz batez, eta hantxe ezagutu genuen elkar. Sasoi berria eta eguraldi ona bide, kantukantari murgildu ginen basoan haritz zaharra gurtzeko edo. Ohitura paganoak, badakizu. Bizkar-zorroan lukainka-ogitartekoa, ardoa eta antoxina. Tuju-tuju! Tuju-tuju! Barkatu, Magi, gehiegi hitz egiten ari naiz. Arnas pixka bat hartuko dugu.

Ez zaitez aldendu, faborez, laster iritsiko gara. Itxaron pixka bat. Heldu gogor besotik.

Badakizu zer maite dudan zure aro berri honetan? Ematen duela adi zaudela, ulertzen didazula. Maite zaitut.

Esaten ari nintzen, motxilan banituela ardo botila bat, antoxina eta lukainka-ogitarteko bat, eta haritz zaharra zegoen tokira ailegatu ginenean, gurtze-leloak aipatu ondoren, hamaiketako egiteko tenorea zela iritzi genion. Lurrera jertseak bota eta haien gainean eseri ginen mokadutxoa egiteko. Nire aldamenean egin zenuen apatx, ilehori, ezpain-gorri, eta ez zenekiela ezer ekarri behar zenik esan zenidan, lotsatuta bezala, inork gehiago ez entzuteko moduan. Nik ekarritakoa elkarbanatu genuen eta esan nizun belarrira: “Hurrengoan zeuretik. Paseotxo bat zor didazu”. Irribarre egin zenidan. Eta horrelaxe egin dugu, urteak joan, urteak etorri, gure haritz zaharrerainoko bidea. Zure irribarrez maitemindu nintzen. Zin egiten dizut.

Tuju-tuju! Aulki hauek pisu handia dute gero! Magi, heltzear gaude, gutxi falta da, ez kezkatu. Goazen, heldu gogor, kontuz zuhaitzen sustraiekin, estropezu egin eta erori gabe. Ez nuke nahi zuk minik hartzerik.

Magi, urteak daramatzagu elkarrekin, ezta? Zenbat? Hogeita hamazortzi? Berrogei? Zuk zehatz-mehatz jakingo zenuke. Barkatu, jakingo duzu, baina ezin esan. Barkatu. Esan dezagun urte asko daramatzagula elkarrekin. Bizitza osoa. Gehiegi, agian? Ez erantzun, maite zaitut.

Niri urdindu zait ilea, dagoeneko; zuk, ordea, ilehori jarraitzen duzu, denbora, *klik*, harako hartan gelditu izan balitz bezala. Ile urdinen bat edo beste ageri zaizu, baina ez esateko lain. Andrakila dirudizu. Ni, berriz, ez naiz sekula zu bezain femeninoa izan, badakizu. “Femeninoa”. Badakizu zer esan nahi dudan horrekin, denok dakigu, gizon tankerakoa edo izan naizela. Ez dut gonarik jantzi, ez naiz takoien gainean ibili, ez dut nire musua egundo margotu. Ilea labur beti, praktikoagoa. Baina zu... Ai, zu! Zu baino ederragorik ez dut mundu honetan inor ikusi! Zure ibilera arina takoien gainean, tiki-taka, tiki-taka, kalean zehar, belaun biribilak bistan. Ni ez naiz inoiz femeninoa izan, aitag ere esaten zidan. Nola erreparatu zenuen nigan? Ez dut sekula ulertuko. Maite zaitut. Zin egiten dizut.

Iristen ari gara, Magi. Ikusten? Hortxe ikusten da gure haritz zaharra. Heldu gogor, aurki hartuko dugu atsedean eta. Tuju-tuju! Tuju-tuju! Barkatu, Magi.

Ez dizut esan. Joan nintzen medikuak egindako bolantearekin ospitalera. A zelako denbora galtzea! Ulertzekoa pazienteen haserrea zenbaitetan. Zuk uste? Neumologoak

probak eta probak agindu zizkidan eta hainbat egunetan joan behar izan nuen ospitalera. Eraitza zein izango zen jakingo ez banu bezala. Buelbaka eta bueltaka, hara eta hona, denbora galaraziz, erremediorik ez dagoela jakinik! “Aizue, denbora nirea da! Itzul iezadazue!” esango nieke gustu handiz, *kolegei*. Korridore hotzetan zain. Ba al dago eskubiderik? Zu ez zinen ohartu, ez zenuen nire atzera-aurreren berri izan. Gaur arte, jakina. Baina zuk ez diozu inori ezer kontatuko. Zuk ez duzu katarrorik harrapatzen. Zuk ez duzu karramarrorik. Zuri senide alemaniarra etorri zaizu bisitan eta gelditzeko asmo irmoarekin, gainera.

Ai! Heldu gara. Eseri aulkitxo honetan, laztana, nire ondoan. Hamaiketakoa jango dugu eta. Nekatuta zaude, ezta? Normala, jada ez gara ginenak, e? Kar- kar! Tuju-tuju! Tuju-tuju! Barrerik ere ezingo dut egin, ba, ito gabe! Begiratu haritz zaharrari. Lotan dagoela dirudi. Lukainka ogitartekoa, ardo botila eta antoxina. Hasieretan bezala. Ez dago lo, ordea. Beldur da bera ere, ez baitaki neguak zer ekarriko duen. Hara! Beste txantxangorri bat!

Magi, beldur naiz. Beldurrak jota nago. Ez daukat kimioen prozesu hori pasatzeko adorerik, ez zu gabe, bederen. Deitu iezadazu koldarra, nahi baduzu. Ikusi ditut benetako mirariak, zin egiten dizut. Eta ikusi ditut krimenak.

Eta nork zainduko zaitu zu, bitartean? Eta nork zainduko nau ni, bitartean? Gureak ez du sendabiderik, badakizu. Gure patua zehaztu dute jada. Eta zin egin genion elkarri gure bizitzaren agintea guk izango genuela, ezta? Ez dugula heriotza mingarririk nahi, ezta? Ba ez niri horrela begiratu, Magi. Horretan gelditu ginen.

Begiratu haritz zaharrari. Gurtu dezagun, antzina bezala, eman eskua eta zatoz arbola besarkatzera. Maite zaitut, Magi.

Nahi al duzu ardo pittin bat? Tori antoxina, egin zurrut. Ospatu dezagun gure eguna, Magi! Lukainka ogitartekoa ekarri dut elkarbanatzeko. Ez? Ez zara egarri? Gose ere ez? Ni ere ez, egia esateko. Erromantikoagoa izan zedin ekarri ditut gauzok, baina ez dago derrigorrik. Gure planarekin jarraituko dugu, axola ez bazaizu. Tuju-tuju! Tuju-tuju! Eztul zikina! Laster hilko haut! Tuju-tuju!

Egitasmo hau izan genuenean ez genekien ez noiz ezta nor-nori-norka ere, e? Baina adostu genuen zer eta nola. Nola diren gauzak! Beti pentsatu izan dut zu izango

zinela agintaria, txano zorrotz gabeko borrero ilehoria, ezpain-gorria. Nik zuk esandakoa egingo nukeen, errutik at, museoan koadro bati begiratzen zaionean bezalatsu. Ardi-txakur baten moduan artzainaren agintera, aurrera, atzera, ezker-eskuin. Eta ez. Irudikatzen ditugun planak ez dira taxuz egokitzen etorkizuna oraina egiten denean.

Txantxangorriak guri begira, zuhaitz adarretik. Ez urduritu, laster izango da dena bukatua. Orain lanik zailena neuk egin behar dut. Zatoz hona, igo aulki gainera, adarretik soka zintzilikatu eta korapiloa egin behar diot eta neurriak hartu. Ekarri ditut sokak, ezta? A, bai! Uf! Imajinatzen duzu? A ze sustoa ekarri izan ez banitu, e? Etxera itzuli behar. Ez, ez... hemen daude, eskerrak. Ezustekoak hiltzeko ere! Tuju-tuju! Tuju-tuju! Barkatu.

Korapilo sendoak egiten ikasi nuen, badaezpada, badakizu, gauza hauek inoiz ez dakizu noiz... Orain denetarik tutorialak daude Interneten eta prest ekarri ditut etxetik. Biok igoko gara aulki banaren gainera, ados? Nik soka saman estu samar jarriko dizut eta gero berdin egingo dut nik neure buruarekin. Adar berean sokok. Gure haritzean, eskutik helduta. Eta prest zaudenean, ostikoa emango diot zure aulkiari eta gero nireari, ados? Hori zen plana. Ez nazazu horrela begiratu. Horretan gelditu ginen, ezta? Faborez.

Ez duzu ardorik nahi? Ziur? Ba nik bai, zintzurra sikatu berri zait eta. Nerbioak izango dira. Hasiberriaren urduritasuna. Zer! Ez dut inoiz honelakorik egin! Zuk bai ala?

Eskatu azken abesti bat. Nahi duzuna. Ez zaizu bat bera ere etortzen? Nik badut bat gogoan, ba. Irratian jarri zuten eta sukaldean egin genuen dantzan, zu gona grisarekin, ni amantalarekin. "El vals de las mariposas". Gogoratzen?

Zatoz, jaitsi aulkitik, dantza pixka bat dena pikutara bidali aurretik. Tuju-tuju! Kaka, ez dago koberturarik. Ezin naiz *Youtubera* konektatu... A, bai, listo. Play. Tuju-tuju! Zatoz, heldu gerritik.

...Dime si tú, hoy,

quieres bailar con el son de

el vals de las mariposas conmigo...

Maite zaitut, Magi, zinez maite zaitut. Eta kaka eginda banago ere, izuak jota, zin egiten dizut ez duzula gehiago sufrutuko. Begietako

Bi txantxangorri haritz adarrean

lanbroa kentzen lagunduko dizudala, medikuok egiteko gai izan ez garena. Tuju-tuju!
Barkatu.

Iritsi da momentua, igo aulkira. Kontuz
adatsarekin, Magi, eder zaude eta ez dizut minik egin nahi.

Eskua.

Danba!

Danba!

*Lararara, la, larara-lararara, la,
larara, larara raaa, lara lararaaaa...*